

122. FITXA Langile landunei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeei zuzendutako laneratzeko eta berrikuntza soziolaboralerako proiektu bereziak garatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Foru-aldundiak eta foru sektore publikoa; EAEko udalak eta tokiko sektore publikoko entitateak; EAEko sektore publikoko entitateak; EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta horiekin lotutako elkarteak; prestakuntza-entitateak.

Sarbide-esteka: [Langile landunei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeei zuzendutako laneratzeko eta berrikuntza soziolaboralerako proiektu bereziak garatzeko 2025eko dirulaguntzak - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziatzko araudia: [EBAZPENA, 2025eko apirilaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2025eko dirulaguntza-deialdia langile landunei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeei zuzendutako laneratzeko eta berrikuntza soziolaboralerako proiektu bereziak garatzeko.](#)

Eremuak: Enplegua

Zenbatekoa: 8.500.000 € (5.950.000 € kolektibo kalteberentzako proiektu berezietarako; 2.550.000 € berrikuntza- eta esperimenezio-proiektu berezietarako)

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/05/25

Laburpena

Deialdi honen xedea da **proiektu bereziak** finantzatzera bideratutako 2025. urterako laguntzak arautzea, gizarteratzeko eta laneratzeko edo langileen enplegarritasuna hobetzeko jarduera integralak diren aldetik.

Proiektu bereziak erakunde publiko edo pribatu batek edo batzuek bultzatutako proiektuak dira, eta esku-hartze, prestakuntza, orientazio eta enplegu mota desberdinak edo proiektu berritzaileak edo esperimenezioak koordinatzen dituzte, aurrekoaz gain beste jardueramota bat barne har dezaketenak. Proiektu guztien helburua parte-hartzaileen enplegarritasuna eta gaitasun pertsonal eta profesionalak bultzatzea edo indartzea da, harik eta % 40ko laneratzera lortu arte.

Proiektu bereziak erabat zuzentzen bazaie aitortutako desgaitasun intelektuala % 33tik gorakoa edo desgaitasun fisiko edo sentsoriala % 65etik gorakoa duten pertsonei, orduan lortu beharreko portzentajea % 20koa izango da.

Baliabideak bi finantzaketa-lerrotan banatuko dira:

- a) Kolektibo kalteberentzako proiektu bereziak.
- b) Jarduera-tasa handieneko enpleguei edota lan-merkatuaren beharrezan lotutako berrikuntza-eta esperimentazio-proiektu bereziak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Deialdi honen barruan diruz lagundu ahalko da proiektu berezien betearazpena. Proiektu bereziak izango dira prestakuntza-, orientazio- edo enplegu-ekintzak, baita proiektu horietan parte hartzen dutenen enplegarritasuna nabarmen hobetuko duen beste edozer neurri ere.

- a) **Aurrez aurreko prestakuntza**, bai prestakuntza egiaztagarrikoa (profesionaltasun-ziurtagiriak edo lanbide-ziurtagiriak lortzearekin lotutako ekintzak, ibilbide osoen arabera –espezialitateko ordu guztiak programatzean– edo prestakuntza-moduluaren arabera programatu daitezkeenak, eta 1., 2. edo 3. mailako kualifikaziokoak izan daitezkeenak), bai prestakuntza egiaztaezinekoa (eskuratutako gaitasunak egiaztatze biderik ematen ez duten prestakuntza-espezialitateen katalogoko prestakuntza-ekintzak). Lanpostuan bertan egiteko prestakuntza-ekintzak ere barne har daitezke, prestakuntza eta lana txandakatuta.
- b) **Aurrez aurreko lan-orientaziorako eta laneratzeko ekintzak**, laneratze-ibilbide pertsonalizatu bat egitea sustatze aldera, parte hartzen dutenen jarraipen pertsonala eta emaitzen ebaluazioa egiteko.
- c) **Enplegu-aukeren prospekzioa**, agente kontratatzaileak izan daitezkeenekin harremanetan jartzeko eta haiek inplikatzeko, lan-merkatuko beharrezan identifikatuz eta proiektu berezian parte hartzen duten pertsonen kontratazioa bultzatuz.
- d) **Proiektuari balio bereizgarria ematen dion jarduketara oro**, baldin eta haren helburua kolektibo hartzailearen enplegarritasuna hobetzea bada, eta aurrez deskribatutako hiru jarduketetatik bestelakoa bada.

Berrikuntza- edo esperimentazio-proiektu bereziak izango dira elementu berriak sartzen dituztenak (edo lehen ezagutzen ziren elementuen konbinazio berri bat) eta gure ingurune hurbileko alternatibak baino balio handiagoa ematen dutenak. Berrikuntza bai edukietan, bai egiteko moduetan egon daiteke, proiektuaren edozein fasetan, eta proiektuak jarduera-tasa handieneko enpleguetan aktibatzea eta laneratzea edota lan-merkatuaren beharrezan erantzutea helburu izan beharko du.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektu berezia **2025eko ekitaldian** hasi beharko da. Proiektu berezia **2026ko irailaren 30a** baino lehen amaitu beharko da, lantokietako prestakuntza praktikoaren modulua barne, hala badagokio.